



esan eta egin
joxe elorrietari
elkarrizketa

imanol murua uria



<i>Edita</i>	Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua Barrainkua 13. 48009 BILBAO www.mrafundazioa.org
<i>Fotocomposición</i>	Horrika
<i>Imprime</i>	Bilbograf
<i>ISBN</i>	978-84-936523-2-6
<i>D.L.</i>	BI-

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
SARRERA	7
Hautzaroa Loiun	9
Ikasle eta militante	12
Sindikatuako kide	14
ELA-ko belaunaldiak	16
Eskuineko sindikatua zela esan genezake?	16
Unibertsitatetik fabrikara	17
Erbesteke ELA-rekin bat	19
Eubako Biltzarra	20
Komunikazio arduraduna	23
Sindikatuaren legeztatzea	27
Lege esparruaren eratzea	29
Estatutuari bai	36
Legitimazioa behetik	40
Sintonia Eusko Jaurlaritzarekin	43
LHK-ren bultzatzaile	46
Birmoldaketa industrialak	47
Barne krisia	54
Etaparen berria	60
ELA(a)-rekin bat	62
Estatutuari ez, eta aliantza berriak	64
Gernikako mugarrak	70
Lizarraren Garaziko prozesua	73
Eredu sindikalaren krisia	81
Prestakuntza etengabea	86
LHK-tik kanpo	90
Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren krisia	94
Parte hartze organoak	96
Herrialde herrialde	98
Iparraldeko apustua	101
Jaurlaritzarekin ulertu ezina	107

Ibarretxeren estrategia soberanista	111
Loiolako prozesua, kanpotik	116
Gogoeta politikoak	120
Antolakuntza aldaketak	123
Nazioarteko parte hartzea	125
Eredu neoliberal auzitan	133
Etorkizuneko sindikalgintza	135
Belaunaldi erreleboa	150
Bizimodu berria	156

AURKEZPENA

ELAren azken urteotako ibileran Joxe Elorrietari egindako elkarrizketa duzue esku artean. Elkarrizketa bizia, zehaztasunez betea, ELAren sindikalgintzak bere muinetan bizi izan duen proiektu kolektiboaren protagonistetako batekin. Hori nabarmendu da bereziki ordu luzeetan eginiko elkarrizketan.

Pertsonaia, Joxe bera, da liburu honen gidaria, aurreneko pertsonan bizitako makina bat abagune eta egoeraren kontatzaile aparta. Liburuaren hasieratik bere bizitzaren pasadizoak ondo asko xehatzen ditu, liburu guztiaren hariari lotuko zaion pribilegiozko memoriarekin. Egilearen esanetan ikaragarria izan da berarentzat Joxerengan deskubritu duen gaitasuna egoerak gogoratzeko, datak, izenak...

Hortik abiatuta elkarrizketa guztiari indarra eta bizitasuna dario, ELAren proiektua barne-barnetik bizi izan duenaren indarra eta bizitasuna. Horra hor liburu hau argitaratzeko arrazoietakoa bat. Baina ez nuke aipatzeko utzi nahi Joxek elkarrizketa hau burutzerakoan beti present izan duen ardatzetako bat: “nik kontatzen dut baina testigantza hau guztiona da, proiektu kolektiboa osatu dugun guztiona”. Ahaleginak eta bi egin ditu orrialde bakoitzean eta denetan inor ez ahaztu eta taldearen ekarpena azpimarratzen, ia era egoskorrean. Ezin zitekeen beste era batetara izan Joxe ezagututa, hau izan baita bere ezaugarrietako bat: talde lanean sinistu, ekarpen amankomunak sustatu eta militante askoren lan eskerga aintzat hartu gure proiektua sendotzeko.

Elkarrizketa hau ELAren historia hurbila kontatzeko beste modu bat da, modu bizia, sentikorra, zirrarez betea. Berari atsegin zaion moduan esanda, belaunaldi batek, bigarren eta laugarrenaren artean zubi lanak eginaz, etorkizunerako erronkei aurre egiteko ezarri dituen zutabe sendoen testigantza kolektiboan sinetsi du, eta hori bera kontatzen du Joxek, belaunaldi horren ahalegina, espresuki. Hitzez hitz, lerroz lerro, ELAren belaunaldiak gidatu duten ezaugarri nagusiek etengabeko han hemenkan, naturaltasun osoz, ageri dira erantzun eta argibide bakoitzean: talde lana, ekarpen kolektiboa, autonomia, koherentzia, militantzia, langileen interesek duten lehentasuna.....

Guztiz baliotsua, guztiz erakargarria deritzogu ELAren sindikalgintzara hurbildu nahi duen ororentzat hemen jasotako esperientzia. Dударik gabe,

irabazleak eta galtzaileak elkarrekin bizi dira. Gero, denboraren poderioz, nolabaiteko adiskidetzea dago hurrengo belaunaldia jaiotzen denean, gure belaunaldia alegia.

Zenbat urterekin hasi zinen eskolan?

Laurekin. Eskola, eta dena, oso hurbil nituen: udaletxea, pilotalekua, eliza... Emaztea ere, Gotzone, Loiukoa da, nire adinekoa, eta esaten diot: "Gutxienez bi urteko aldea kentzen dizut, Loiun barrena zu baino lehenago ibili bainaiz". Izan ere, ibiltzen ikasi orduko etxetik alde egiten genuen. Ez zegoen autorik, ez zegoen ezer. Beti kalean. Eta kalea, ume-umetatik, jende nagusiagoarekin egotea zen, udaletxe ondoan eta plazan hizketan aritzen zen jendearekin...

Irratiak eta prentsak garrantzia izan zuten zure haurtzaroan, ezta?

Etxean, bitxia bada ere, egunero irakurtzen zen egunkaria. Harrigarria zen, salbuespena, garai hartan jende askok ez baitzuen egunkaria erosten. Apaizak, eta ez dakit nork gehiagok. Eta irratia zabaldu zenean, hori ere etorri zen etxera. Irratiaren garaiko semea naiz. Asko gustatu izan zait irratia, egunkariaz gain.

Zer egunkari irakurtzen zenuten?

El Correo. Apaizak La Gaceta del Norte, eta guk El Correo. Amak ekartzen zuen Bilbotik. Baina igandeetan, ama ez baitzen Bilbora joaten, neu joaten nintzen Asuara egunkaria erostera, zortzietan meza txikira joan ondoren. 1,50 pezeta balio zuen, eta egunkaria erosteagatik beste 1,50 pezeta ematen zidaten. Eta Roberto Alcázar y Pedrín komikia erosten nuen. Osabari politika gustatzen zitzaion. Esate baterako, bigarren mundu gerrako istorioak kontatzen zizkidan, El Correo-n irakurri zuena, susmatzen dut, beste informazio iturririk ez baitzuen izango: Normandiako lurreratzea, Montgomery, Eisenhower jenerala...

Gogoratzen duzu zer irrati kate entzuten zenuten?

Radio Bilbao, EAJ28 Radio Bilbao. Baziren, baita ere, Radio Nacional, Radio Juventud, Radio de la Falange... baina guk beti Radio Bilbao. Irratia, garai hartan, irrati-nobelak ziren eta, noski, Espainiako ereserkia, albistegia bukatzean. Ereserkia ez genuen entzuten, horixe baitzen irratia itzaltzeko unea.

Irratia Espainiako Itzulia ere bazen, eta Frantziakoa. Lau eta erdietan eskolatik irten, eta lasterketa irratian jarraitzera. Gero, jendea fabriketatik etortzen zen, bostetan edo seieta gutxi gorabehera, asko bizikletan eta batzuk

Vespan edo Lambrettan, pilotalekuan edo plaza ondoan batzen ginen eta etapan gertatu zenari buruz mintzatzen ginen.

Loroñoren eta Bahamontesen arteko lehia grina handiarekin bizi zen garaia zen. Abertzaleak zein ziren eta zein ez zehazteko modua zen ia. Loroñozale guztiak ez ziren abertzaleak, ezta alderantziz ere, baina ia-ia horrela zen. Gogoan dut 1957an, Loroñok Espainiako Itzulia irabazi zuenean, 6 urterekin Enekuriraino joan nintzela, Santo Domingoko gainera, lasterketa herriko jendearekin ikustera. Ikusten duzu zenbateraino kontrolatzen gintuzten etxean. Gogoan dut Bahamontesek Frantziako Itzulia irabazi zuenean, 1959an, a zer drama! Estatu selekzioak ziren. Hautatzaileak, Langarikak, ez zuen Loroño aukeratu, eta Bahamontes, bai. Eta, gainera, Bahamontesek Tourra irabazi zuen. Horrek guztiak zerikusia du irratia munduarekin.

Noiz joan zinen Bilboko eskolara?

10 urterekin Tivoliko eskolara joan nintzen. Eta 13 bete arte aritu nintzen han. Gero, beka batekin, batxilergoa egiten hasi nintzen, orain Unamuno izena duen institutuan nire kasa azterketa eginda. Unibertsitatearen aurrekoa Eskolapioetan egin nuen, Bilbon baita ere. Irakasleetako bat Justo Mokoroa zen. Frantsesa ematen zigun. Egia esan, hizkuntzekin oso gaizki moldatzen nintzen eta suspenditu egiten nuen, baina oso pedagogo eta ikertzaile ona zela gogoan dut. Bere bizialdiaren bukaera aldera bi liburukote argitaratu zituen: “Repertorio de las locuciones del habla popular vasca”.

Ikasteko pribilegioa izan zuen lehen belaunaldikoa naiz. Gure aurreko belaunaldiaren istorioa zera zen: 14 urterekin fabrikara aprendiz, Asuako enpresetara. Asua oso industriagune garrantzitsua zen. Aprendiz izatetik hirugarren mailako ofizial izatera pasatzen ziren, hirugarren mailatik bigarrenera, bigarrenetik aurrenekora, eta hor bukatzen zen belaunaldi horretakoen lan ibilbidea. Batzuek, gau-eskolekin bateragarri egiten zuten lana. Gure aurreko belaunaldian, ia inor ez zen gelditu baserrian. Salbuespenen batekin, gure aurreko belaunaldi osoak baserriar izateari utzi zion.

IKASLE ETA MILITANTE

Eskolapioetatik Deustuko Unibertsitatara, Ekonomia ikasketak egitera. Hori egin nahi zenuen?

Kazetaritza egin nahi nuen, baina garai hartan Bilbon ez zegoen. Eta guk ez genuen dirurik, Nafarroan estudiantu ahal izateko. Orduan, Deustura joan nintzen, doan ikastea ahalbidetzen zuen beka sistema zutelako, Aguirre Fundazioaren beka. Deustuko ikasketak doan egin nituen, laugarren mailara iritsi arte. Laugarrenera iritsi nintzenean, Fakultateko dekanok, (Luis) Bernaolak, bulegora deitu ninduen. Denaren jakinaren gainean egoten zen dekanok hura: andregaiarekin noiz hasi zinen eta zure bizitzako beste kontu guztiak. Bulegora deitu eta esan zidan diru-laguntzen kontua berriro egituratu behar zutela, agortzen ari zirelako. Gelditzen zitzaizkidan bi urteen herena ordaintzeko proposatu zidan, beste heren bat bekarekin ordainduko zen eta azken herena ohore-maileguaren bidez ordaintzea proposatu zidan; hau da, unibertsitateak mailegatu egiten zidan, eta nik ikasketak bukatu ondoren itzuliko nuen, interesik gabe. Baietz esan nion. Ezetz esan banu, ez zidaten kenduko, ikaskide batzuek bekaren beharra zutela erantzun zutelarik bekarekin jarraitu baitzuten. Baina arrazoizko proposamena iruditu zitzaidan. Ohore-maileguen sistema honen bidez uda bat egin ahal izan nuen Irlandan, ingelesa ikasteko. Baina, egia esan, ez da igartzen.

Gogoan dut irakasle izan nituela Mario Fernandez eta Jose Ignacio Arrieta, oso irakasle onak gainera. Gerora Eusko Jaurlaritzako Lan sailburu izan ziren biak, ELAren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak gaurkoaren aldean oso bestelakoak ziren garaian, desadostasunak desadostasun. Baina, irakasleen artean, ezin ahaztu Gotzon Garate. Beti haren sostengua izan dugu gure konpromiso sindikalean. Gogoan ditut bere animo oharrak, ELAren une zailetan. Euskaltzale eta pertsona handia zen.

Noiz eta non hasi zinen arlo politiko edo sozialeko ekimenetan parte hartzen?

Beti Lagunak elkartean, unibertsitateko ikasle nintzenean. Garai hartan, Elizaren babespean, OAR elkarteak sortu ziren hainbat herritan: Organizaciones Atlético Recreativas. Gipuzkoan OARGI izena hartu zuten. Loiukoak Beti Lagunak izena zuen. Nire adineko jende taldea ginen, edo pixka bat nagusiagoa. Hamar urte zaharragoa zen jendeak sortu zuen. Dantza taldea genuen, antzerkia egiten genuen eta herri aldizkaria ateratzen genuen, Gazteapen. Ciclostil-arekin argitaratzen genuen, kalkodun kopiagailuan.

A zer gauza sartzen genituen! Aldizkariaren azaletako bat Camilo Torresi buruz izan zen, Kolonbiako apaiz gerrillaria. Kolonbiako Unibertsitate Nazionaleko Soziologia Fakultatearen sortzailea izan zen, eta oraindik CUT sindikatuaren adar batek Camilo du ikur. Nik Karabisu ezizenarekin sinatzen nuen. Loiuko mendi bat da Karabisu. Sasoian nengoenean igotzen nuen, pilotan jokatzeko nuen garaian. Ez nintzen pilotari ona izan, baina pilotalekuko gizona izan naiz. Asko gozatu dut.

Euskal jai bat ere antolatu nahi izan genuen, Lauron (Loiuko auzoa), San Migel festetan, eta Mikel Laboa ekarri nahi izan genuen. Gotzone, beste lagun bat eta hirurok Donostiara joan ginen Mikel Laboarengana. 17 edo 18 urteko gatzetxoak ginen. Trenz joan ginen, egun osoko bidaian, Mikel Laboarekin egon ginen bere etxean, gogoan dut Keler garagardo bana atera zigula, eta etorriko zela hitz eman zigun. Baina Poliziari abestien eta abarren kontu eman behar zitzaion, eta euskal jaia debekatu egin zuten. Batzuk baimentzen zituzten, eta beste batzuk ez, ez dakit zer irizpiderekin. 1960ko hamarkadaren bukaera izango zen.

Nondik ateratzen zenuten dirua?

Kuota genuen. Eta idi-demak antolatzen genituen, dirua ateratzeko. Demaz bazekien pertsona nagusiago batek laguntzen zigun. Gero, taberna bat genuen, asteburuetan irekitzen genuena. Horrekin, gure jardunari eusten genion. Eta horrek bide eman zigun beste OAR batzuekin harremanak izateko, batez ere Txorierrin. Uste dut orduan hasi zela antolatzen, lehenengoz, Txorierriko gazteen arteko koordinazioa.

Beti Lagunak elkartean ari zinela, frankismoaren aurka militatzen ari zinela sentitzen zenuen?

Baiezkoan nago. Ez ginen EAJkoak, ezta ETAkoak ere. Gure taldeak politika aurreko soslaia zuen, jarduera kulturekin, ezkerrekoa izan zitekeen joerarekin.

¹ Hego Euskal Herriko.

SINDIKATUKO KIDE

Noiz eta nola egin zenuen ELArekin harremana?

Unibertsitatean ari nintzela sartu nintzen ELAn, bigarren edo hirugarren mailan, ikaskide baten bidez. Bera ordurako ELAko talde batean sartua zegoen.

ELAko zein taldeetan?

Barnealdeko¹ taldeetako batean. 1971 edo 1972 zen. ELA ofiziala beste aldean zegoen, Miarritzen, eta geure buruari ELA esaten genion hainbat talde geunden barnealdean.

Municheko itunak, 1962an, ELAn banaketa handia eragin zuen, barnealdeko sektoreak uste zuelako EAJk München PSOEn ildoari jarraitu ziola. Itun hartan zeuden erbesteko Eusko Jauriaritza, PSOE, EAJ, ANV... eta sindikatuen artean, CNT, UGT eta ELA. Orduan, barnealdeko ELAk uste zuen amore eman zutela, ez zutela berehalako autonomia aldarrikatu. Municheko ituna kritikatzeko hasi zen eta, 1964an, banaketa gauzatu zen. Geroztik esan daiteke barneko ELA bat dagoela, benetakoa, antolatua, gogoeta propioduna, koadroduna, EAJrekin kritikoa eta, beraz, erbesteko ELArekin kritikoa. Erbesteko ELAk zuen, hala ere, zilegitasun historikoa eta nazioarteko ordezkarietza.

Barnealdeko ELAn talde bat baino gehiago zineten, ezta?

Bai. 1967an, Lan Deya argitaratzen duen sektoreak, aldizkariaren goiburuan "ELA-MSE" (Movimiento Socialista de Euskadi) jarri zuen. Beste banaketa baten seinale zen: batetik, ELA-MSEri eusten zion taldea, eta bestetik, gune nagusia Urola-Kostan zuen taldea. Ni talde honetan nengoen, Urolakoan, gero 1976ko biltzarra egingo zuen taldean.

Zein zen ELA-MSEren eta ELA-Urolaren arteko aldea?

Ez nintzen tartean izan baina, azaldu zidatenez, banaketa gertatu zen gure taldeak ez zuelako onartu sindikatua MSE bihurtzea. MSEn geratu zirenek ESB sortu zuten gero. Urolako taldeak erabaki zuenean etorkizuneko egitasmoa sindikatu hutsa zela, ni ordurako taldean nengoen. Behin erabaki hori hartu ondoren, ELA historikoarekin negoziazioak hasi zituen, bat egiteko.

Orduan, gure taldean beste zatiketa bat izan genuen, talde bat ez zegoelako ados sindikatu hutsa izatearekin. Talde hori kanpoan gelditu zen, eta gerora ESEIren gune sortzaileetakoa izan zen.

Eta, aparte, ELA (Askatu) sortu zutenak zeuden, eladioak.

Eladio esan izan zaie, baina benetako “eladioa” Kepa Anabitarte da, barnealdeko ELAko lehenengo liberatua. ELA(A)koak ia Bizkaian bakarrik zeuden, eta gu batez ere Gipuzkoan.

Loiukoa izanik, nolatan jo zenuen Urolako taldera?

Bi arrazoi objektibok azaltzen dute, nolabait, nire konpromisoa. Bata, herria. Langile oinarria duzu Loiun. Langile girokoa zara, abertzalea. Greba batzuk izan dira, eta obrerismoa modan dago, frankismoaren erreferente alternatibo gisa. Eta bestea, unibertsitatea. Unibertsitatean frankismoaren aurkako jarrera ezkerrekoa da, abertzalearen eta espainolaren arteko lehia dago, Euskal Kultur Taldeak (EKT) ere hor daude... Eta nik, intuizioz, unibertsitatean abertzale denaren aldeko hautua egin nuen.

Deustuko Unibertsitatean, oso eliteko unibertsitatea izanik, enpresa handietako zuzendaritzako kideak formatzera bideratutakoa, nik marxisten lanak aukeratzen nituen. Ez neukan inolako arazorik horretarako. Paul Baran, Paul Sweezy, Oscar Lange, Michal Kalecki... Beraz, nire lan akademikoak, agintari akademikoaren inolako murrizketarik gabe, joera hori zuen.

Hortik aurrera, ez nintzen PCEra joango. Zer arraio egiten zuen loiuztar batek PCEn edo MCEn? Prestakuntza ideologikoaren arabera, EAJkoa ere ez nintzen izango. Baina zera esango dut: EAJko orduko belaunaldiak, Loiukoak, orain 80 urte dituenak, batetik, konpromiso klandestinoaren zintzotasuna izan zuen, eta bestetik, oso jende ondradua zen, jatorra, herrian itzal handia zuena. Haiak erakarri ez baninduten, prestakuntza ideologiko jakina nuelako zen. Baina Loiuko EAJko koadroen oso gomuta atsegina dut. Oso jende zuzena. Besteren artean, Damaso Arriaga dut gogoan.

ETA gelditzen da. 60etako ETARA jo zenezakeen.

60etako ETA ez zen sartu Loiun. Larrabetzun eta Sondikan bai, baina Loiun ez. Gero bai, baina beste belaunaldi batean. Menturaz, ikasmahaiko adiskidea ELAkoa zen. Eta nire artean esan nuen: nirea hau da.

Eta sindikalista nordiko batekin hizketan, ulertzen zidala esan, baina galdetu zidan:

“Eta ETA gelditu eta bukatzen duenean, bi sindikatuek bat egingo duzue?”. Esan nion: “Hori ez dakit, bi gauza gerta baitaitezke: aliantza estrategikoagoa egitea, iraunkorragoa, edo sindikatuen arteko lehian sartzea. Edonola ere, orain baino hobeto egongo garenez, egoera horretara iristeko egingo dugu lan”.

UGTk eta CCOOk kontra jotzen zutela esan duzu.

UGTk eta CCOOk, sindikatu frantses batzuekin batera, Garzonen erako kanpaina egin zuten, terrorismoaren gainean guk geneukan jarrerari buruz zalantzak sortzeko helburuarekin, LABekin harremana genuen neurrian. Nazioartea indarkeria antolatuaren fenomenoekiko oso sentibera dela eta praktika horien kontra oso jarrera erradikala dutela baliatu zuten. CCOOren eta UGTren kutsatze maila oso handia izan da. Lotsagarri jokatu zuten. Arbuio politikoa ez ezik arbuio instintiboa duten fenomenoak baliatzea da hori, etekinak ateratzeko eta gu leku txarrean jartzen ahalegintzeko. Horrek ahalegin handia egitera behartu gintuen. Zorionez, nazioartean erakundeok badakigu eremu bakoitzeko errealitateak xehetasun gehiagorekin ezagutu behar direla, eta errespetua egon behar duela.

Gauza batean nahastu egiten dira: gu ezagutzeko gutxieneko interesa dutenek dagoeneko ezagutzen gaituzte, eta gure jarrerari buruzko azalpenak emateko aukera izan dugu, konplexurik gabe eta sostengu sendoekin. Eta babes sendoekin, hala nola Belgikako CSCrena eta, konkretuki, Willy Peirens presidentearena.

GERNIKAKO MUGARRIA

Estatutuaren agortzearen diagnostikoaren eta LABekiko gerturatzearen bidetik iritsi zen ELA Gernikako ekitaldira, 1997ko urriaren 18an, jendaurrean “Estatutuaren heriotza” aldarrikatzeko.

ELArentzat garrantzitsuena ez zen izan Gernikako ekitaldia, ekaineko biltzarra baizik. Biltzarrean argi eta garbi zehaztuta zeuden tesi soberanistak. Gernikako ekitaldiak oso karakterizazio berezia eman zion, baina kasualitatea izan zen.

Ez zuen ematen.

1997ko uztailean ETAk Miguel Angel Blanco hil zuen. Oso dramatikoa izan zen. Manifestazioan izan ginen. Manifestazio hark, oso jendetsua izateaz gain, diseinu berria zuen, mugarrria izan zen hedabideen erabileran, ez ETAREN kontra, baizik eta abertzaletasunaren aurka. Ermuko hiletara ere joan ginen. Estatuko aginteen agerraldia izan zen, bistaratu zedin zehatz-mehatz antolatua: Armadaren Estatu Nagusiko buruzagia, Itsas Armadako buruzagia... erakustaldia.

Artean uztailea, EAJrekin bilera izan genuen. Maiztasun handi samarreko harremana genuen. Esan genien: “Zerbait egin beharra dago. ETA hain urrutira joan da, abertzaletasunaren kontrako eraso datorrela, oso neurtua, azkeneraino joango dena”.

Gogoeta horrekin ados zeuden?

Bi erakundeok bat gentozela uste dut, baina gogoeta ez zen ezertan gauzatu. Irailean, Guggenheimen inaugurazioa etorri zen. Eta giro horretan, jabetu ginen inauguraziora Espainiako Erregea zetorrela. EAJko bati esan nion: “Baina Guggenheim nork ordaindu du? Erregeak ordaindu du? Zeren eta, guk ordaindu badugu, inaugura dezala lehendakariak!”. Euskal abertzaletasunaren aurkako eraso betean, nazionalismo instituzionalaren sektore batek monarkiari ohore egiten dio. Hemen zerbait gertatzen ari da!

Irailean baita ere, ministro batek, Rodrigo Ratok, INEMen transferentziarik ez dela egingo esan zuen, Estatutuak hori esaten duen arren, “ez bizitza honetan ez bestean”. Erabateko lotsagarrikeria, zeren eta gauza bat baita ez ematea, eta bestea, gainera harro aldarrikatzea ez duzula Estatutuaren konpromisoa beteko.

Zerbait egin beharra zegoen, erantzuten ez bagenuen argi eta garbi defentsiban geldituko baikin. Orduan, Gernikara joatea erabaki genuen.

Baina egun batzuk lehenago ETAk Txema Agirre ertzaina hil zuen, ELAko afiliatua, Guggenheim aurrean.

Bost egun lehenago. Guggenheim hilaren 18an inauguratu zuten, larunbatean, Gernikako ekitaldiaren egun berean, eta Txema Agirre astelehenean hil zuten. Astearte edo asteazkenean hiletan egon ginen. Eta larunbatean Gernikara joan ginen.

Herri Batasunekoek joan egin nahi zutela esan ziguten eta ea eragozpenik bagenuen. Ezetz, gu pozik. Hiru egun lehenago Txema Agirreraren hiletan egon ginen! Pixka bat gogorra zen larunbatean Mahai Nazionala ELAREN ekitaldian

egotea. Kontua da azkenean denak zeudela: EAJ, EA, HB, Ezker Batua, Zutik, Elkarri, LAB, EHNE... Zergatik? Baldintzak zeudelako. Siglak eta ekitaldia ELAk jarri zituen. Komatxo artean, arriskatu egin zen eszenaratze hori egitera. Arriskatu diot, espektro abertzale osoaren lehen eszenaratzea baitzen, ezker abertzalea barne, hain juxtu ETAk aste horretan ertzain bat hil zuenean, eta hiru hilabete lehenago Ermuan Blancoren hilketa gertatu zenean.

Beraz, kasualitatea baino zerbait gehiago izan zen.

Kasualitatea izan zen nola eta non egin zen. Denok egotea, aldiz, ez zen kasualitatea. Gernikakoa ez zen izan ELAk Estatutuari buruzko jarrera berrikustea erabaki zuen ekitaldia, hori biltzarrean egin baitzuen. ELAk Estatutu itunaren haustura jendaurrean agertu zuen ekitaldia izan zen Gernikakoa, eta abertzale guztiak jendaurrean elkarrekin modu horretan agertzeak eman zion garrantzia ekitaldiari.

Francisco Letamendiak, ELAren historiari buruzko liburuan (ELA 1976-2003. Sindicalismo de contrapoder), idatzi du gehiengo politiko eta sozialak Ermuko espirituaren antinazionalismoari eman zion lehenengo erantzun koherentea izan zela Gernikako ekitaldia. Ados?

Horrela da. Ermukoak asko baldintzatu zuen Gernikako ekitaldia.

ETA soberan dagoela eta enbarazu egiten duela adierazi zen ekitaldian HBko Mahai Nazionala presente egoteari buruz zer ondorio atera zenuten?

Aste horretan gertatutakoaren ondoren (Txema Agirrerren hilketa) Mahai Nazionala han egotea bezain desegokia zen ELAko idazkari nagusiak esan zuena esatea Mahai Nazionala han zegoela.

Anekdota bitxia gertatu zitzaidan. Bukatu nuenean ezker abertzaleko jende asko etorri zitzaidan; konparazioan esaten dut, han jende gehiena ELAkoa baitzen. Ezker abertzaleko batek, oso militantea, ni baino nagusiagoa, esan zidan: “Joxe, oso pozik nago egin duzuenarekin eta egin duzuen moduarekin. Gauza bakarra ez zait gustatu: ETA soberan dagoela eta enbarazu egiten duela esatea; hori beste era batera esan zenezakeen”. Eta esan nion: “Baina hori diskurtsoaren zati nagusian dago, Estatutuarenaren balio bera du. Hori osoko zuzenketa da!”. Eta esan zidan: “Ez, ez didazu ulertu. Esan behar zenuen borroka armatua soberan dagoela eta enbarazu egiten duela”. Zuzenketa horrek atentzioa eman zidan, kritika ez baitzen ez zuelako uste borroka armatua soberan dagoela eta enbarazu egiten duela.

EAJ ere han izan zen. Ordurako ikusten zenuen EAJrekin norabide berean aritzeko aukera bazegoela?

Lehen esan dut EAJko zuzendaritzako hiru hauekin (Egibar, Ollora eta Agirre) oso komunikazio ona genuela. Gerora Lizarra-Garaziko Ituna ahalbidetu zuten baldintzak ematen ari ziren. Denok jabetzen ginen zerbait egin zitekeela, eta bakoitzak egiten zuenak lagundu egin zezakeela. Beharra genuen. Horrelakoetan ohartzen zara autonomiak zelako garrantzia duen. Zuzen edo oker egon zaitezke, baina egin egin behar dela uste baduzu, egin egiten duzu.

Garai baten hasiera izan zen Gernikako ekitaldia?

Hori da. Gure krisi politikoa 1992an hasi zen eta 1997an bukatu. 1992ak Estatutuaren gure krisia zabaldu zuen, eta 1997ak soberanismoaren aldeko gure apustua.

LIZARRA-GARAZIKO PROZESUA

Urtebete eskas joan zen Gernikako ekitalditik Lizarra-Garaziko Itunaren sinatzera, 1998ko irailean. Zer gertatu zen 11 hilabete horietan?

LABekin harreman handia, EAJrekin harreman handia, Elkarri-rekin sintonia, hirugarren espazioa zabaltzen ari zen... Gero, presoan aldeko baraualdia dago, (Donostiako) Ibaetan. Sorkunde Garbiaren dogman bezalatsu, ahal genuelako joan ginen Ibaetara, egin egin behar zela erabaki genuen eta egin egin genuen. ELA Ibaetako itxialdira hain zuzen ere horregatik joan zen: ahal izan genuen, ez genion inori baimena eskatu behar. Joan nahi zuten batzuek agian ezin izan zuten, ez zeukatelako euren erakundearen babes nahikorik. LABek eskatu zigulako joan ginen Ibaetara, eta nahikoa arrazoi bazela pentsatu genuen, zeinuak eta keinuak egin behar horretan. Han topatu nituen Jon Sarasua, Mikel Markez, Juan Mari Olano, Xabier Oleaga, Rafa Diez, Mariano Ferrer, Antton Lafont, Txema Esparza... ELAtik German Kortabarria, Juan Antonio Korta eta hirurok joan ginen.

ELAk Lizarra-Garaziko Itunean laguntzaile eginkizuna izan zuela esan izan duzu. Baina ez da erraza hori sinesten, kontuan hartuta ELA-LAB aliantzak zer protagonismo izan zuen jatorrian.

Lizarra-Garazira egindako gure ekarpena LABekiko ekintza batasuna izan zen, eta ekintza batasun horren ondoriozko sinesgarritasun sindikal eta politikoa. Kito. Lizarra-Garaziri ez genion bestelako ekarpen objektibo

funtsezkorik egin. Gauza gehiago egiten dituzu: kontrastatu, egiaztatu, konpromisoak hartu... baina asko sinplifikatuta, garrantzitsura mugatuta, ELAren ekarpena LABekiko ekintza batasuna da.

Zer ekarri zuen ekintza batasun horrek?

Guretzat garrantzitsua izan zen beraiekin izan genuen gogoeta maila ere: Rafa Diez, Santos Indakoetxea, Txutxi Ariznabarreta, Txomin Lorca, Jose Luis Rezabal... Beste aldearekin egindako gogoetan ikasi egiten duzu, eta pentsatzen dut alderantziz ere gertatzen dela: prozesu zibilerako estrategiaren zure analisia egiten duzu, eta pentsatzen duzu balioa baduela beste aldearentzat. Ikasi egiten duzu, eta irakatsi. Esperientzia bateratua da garrantzitsua, eta harreman horren balantze bateratua.

Zentzu horretan, LABekiko harremana oso sakona izan zen, oso benetakoa. Horrek ez du esan nahi interesak edo mugak ez zeudenik. Baina ez da hori garrantzitsuena, kontua baita nola kokatzen duzun zure burua prozesuan, zer konpromisorekin eta zer ahalegin egiten duzun erakunde gisa.

Meritua, akordioaren mamian, EAJrena eta ezker abertzalearena da. Bakoitzari berea. Horregatik esaten dut guk ez genuela eginkizun nabarmenik izan akordioaren gauzatzean. Hobeto ulertzeko: guri ez ziguten ezer galdetu testuari buruz, eta ez genuen zuzenketak egiteko aukerarik izan.

Sinatu besterik ez?

Hain zuzen. Egina etorri zen. Joan ginen eta sinatu egin genuen. Horixe egin genuen. Ez zeukan zentzurik zuzenketak egiten hasteak. Akordioaren gakoak zirenak ziren. Solaskideak zirenak ziren. Gu laguntzaile huts izan ginen akordioaren gauzatzean.

Akordio haren atzean zegoenari buruzko aski informazio izango zenuten, noski.

Jakina informazioa genuela. Baina garrantzitsuena ez da xehetasunen informazioa. Informazioa, analisia, zalantzak... partekatzen genituen. Akordioa egin zutenen meritua oso handia da, gauzak ondo atera ez ziren arren, eta azaldu egin behar da zergatik, baina horrek ez dio baliorik kentzen Lizarra-Garaziko akordioari.

Azken emaitza gorabehera, prozesua ongi bideratua zegoela uste duzu?

Baiezkoan nago. Denboraz kanpoko analisiak arriskutsuak dira. Etorkizunari begira esan dezakezu hau edo bestea egin ahal izan zela, baina iraganari begira badu meritua, abertzaletasunaren bi familia handiek eduki izan duten

desenkontru hain handiaren ondoren, giro hartan eta baldintza haietan, akordio politikoa egitea eta su-etena hitzartzea.

Zerk eta zergatik huts egin zuen?

Akordio batean garrantzitsuena ez da zer sinatzen den. Horrelako akordio batean garrantzitsuena aldeek elkarrekin duten konfiantza da, batasun soberanistaren ipar politikoaren konpromisoa hartzeko. Konfiantza nahikoa ez dagoelako hori testu baten bidez ordezkatu nahi baldin baduzu, testuak, oso ondo egindakoa izanagatik, inoiz ezingo ditu aurreikusi etorriko diren egoera guztiak. Ezinezkoa da.

Arlo sindikaleko adibideak jarri ohi ditut. ELAren sekzio sindikal batek maiatzean esaten du hurrengo urteko hitzarmenerako aldarrikatuko duela aldi baterako langileak finkoak izan daitezela eta, bestela, grebara goazela. Bilerak egiten ditugu, lan guztia egin dugu, urtarrila iristen da eta, esaten duzu, ezin da. Enpresaria mugitu egin delako, denak ez dituzulako konbentzitu grebarako arrazoia dela, edo egoera aldatu egin delako. Erakunde serioa bazara, aldaketa bat gertatzen bada, sekzioa biltzen duzu eta esaten duzu esan genuen hura ez dagoela egiterik. Urtebeterako sinatuko dugu, urtebetean berriro helburua hartzea posible den ikusteko.

Hau da, konpromiso soberanista epeetan eta edukietan neurtzea, egutegi batekin, ezinezkoa da. Ez da posible. Uste dut funtsean horrek huts egin zuela.

Aurkariak ere jokatzen du. Estatuaren erreakzioa...

Jakina. Aurkariak ere jokatzen du. Beti jokatzen du.

Gogor jokatu zuen.

Gogor jokatu zuen, bai. Ez zeukan derrigor horrela jokatu beharrik, baina horrela jokatu zuen. Azaroan Sabino Arana Fundazioaren bilera batean parte hartu genuen LAB, UGT eta ELAko idazkari nagusi Rafa Diezek, Carlos Trevillak eta hirurok, Francesco Cossigak ere bai, eta bilera hartan Xabier Arzalluzek konfiantza agertu zuen Aznarri buruz presoan gainean; hitzeko gizona omen zen. Artean, egoera zabalik zegoen. Badirudi presoan gaia abenduan erabaki zuela, Mayor Orejaren ildoan nagusituta. Jakina, Estatuak erreakzionatu egin zuen, eta gero beste gauza batzuk gertatu ziren. EAJko sektore bati ere ez baitzitzaion askorik gustatzen Lizarra-Garaziko akordioa.